



Jose Inazio Ugartemendia, bere gaztandegian. ENERITZ MAIZ

«Txikia nintzenetik esaten nuen ardiekin egin nahi nuela lan»

JOSE INAZIO UGARTEMENDIA ARTZAINA

Berastegiarrak enpresako lana utzi zuen duela sei urte, eta ordutik artzaintzan ari da; Gazpio izeneko Idiazabal jatorriko gazta ekoizten du, eta lanak «bete» egiten duela dio // 6

'Frontona' antzezlanak izango da ikusgai, etzi Villabonan

Pilota aitzaki hartuta, euskal kultura jarri nahi dute erdigunean; Unai Urruzolak zuzenduta, eskualdeko hainbat gaztek hartzen dute parte // 5

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua abiatu dute

Tolosako Udalak herritarrekin batera zehaztu nahi du hurrengo urteko aurrekontua, eta dagoeneko abiarazi du prozesua // 3

Unai Iribarrek hirugarren postua lortu du Espainiako Txapelketan

Txirrindulari ibartarra denboraldi oso ona ari da egiten; profesioaletara igotzeko helburua du // 7

ASTEAZKENA

2021/06/23
9. urtea, 1.441. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus


URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

 **gorriti | martínez**

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa

Tel: 943 650 192

www.gorritimartinez.com



PVC



ALUMINIOA



EGURRA

Suen pizteek eta kultur saioek hartuko dituzte herrietako plazak

San Joan bezpera ospatzeko, gaur iluntzean hainbat herritan piztuko dute sua, musika zein dantza emanaldiez lagunduta; aurrerago, berriz, San Pedro jaien txanda izango da

Josu Artutxa Dorronsoro

Jatorri paganoa duen antzinako festa egun garrantzitsua da San Joan eguna, ekainaren 24a alegia. Udako solstizioaren hasiera markatzen du, nahiz eta benetako solstizioa ekainaren 21 gauekoa izan. Hain justu, atzo eskaini zuen Et Incarnatus orkestrak, solstizio kontzertua, Laskorain Ikastolan. Gaur, berriz, ohiturari jarraituz, San Joan bezperan piztu ohi den sua piztuko da eskualdeko hainbat herri eta auzoetan.

Besteak beste, Orendainen izango dute suaren gainetik jauzi egiteko aukera, iaz surik piztu gabe geratu ondoren. Horrez gain, beste urte batzuetan bezala, mahaiak jarriko dituzte suaren inguruan, bakoitzak etxetik eramandako otordua jateko. «Norberaren ardura izango da ezarritako neurriak errespetatzea», adierazi dute udaletik.

Gainerakoan, antzerki saioek, dantza emanaldiek edota musika kontzertuek atonduko dituzte herri ezberdinetako suen pizte ekitaldiak. Altzon, Solstizio festa ospatzeko dute; Tolosan, berriz, beste urteetan Andre Mari plazan izan ohi den emanaldia zezen plazara lekualdatu dute; Amasa-Villabonan eta Zizurkil kalejirak egingo dituzte; eta Berastegin, dantza izango da protagonista nagusia.

EGITARAU ZABALA, LEABURUN

Behin San Joan bezpera eta eguna igarota, San Pedro festen txanda izango da. Ekainaren 29an izango da egun handia eta iaz ez bezala, aurtun ekitaldi ugari antolatu dituzte Leaburun eta Asteasun.

Leabururen kasuan, udalarekin elkarlanean, kultur egitarau zabala antolatu du jai batzordeak. Ekintzetan parte hartzeko, ekainaren 24a baino lehen eman behar da izena, udaletxera deituz (943 675 931) edo WhatsApp mezua bidaliz (648 915 569). Ekitaldi guztietan herritarrek izango dute lehentasuna, eta frontoiko saioen kasuan, 80 laguneko izango da edukiera.



Iaz, gonbidatu gutxi batzuk soilik izan ziren Tolosan piztutako suan; aurtun, herritarrek ere bertaratu ahal izango dute. J.A.

SAN JOAN BEZPERAK TOLOSALDEAN

ALTZO

21:00. Solstizio festa, Artea dantza taldearen eta Intujai Teatro antzerki konpainiaren eskutik.

AMASA-VILLABONA

21:30. Kalejira abiatuko da eta herriko plaza batzuetan dantza egingo dute.

ASTEASU

21:00. Sua piztuko dute plazan.

BERASTEGI

17:00. Gimnastika erritmikoko ikasleen ikuskizuna, plazan.
17:45. Dantza eskolako haurren emanaldia, plazan.
Ondoren. Berastegiko soka-dantza.
18:45. Musika eskolako ikasleen kontzertua, plazan.
19:30. Sua piztuko dute eskola atarian eta txorimaloak sutara botako dituzte.
Jarraian. San Juan dantzak eskola

atarian, herriko dantzarien eskutik, eskola atarian.

Ondoren. 21:30ak bitarte, suaren gainetik salto egiteko aukera.

GAZTELU

22:00. Sua piztuko dute plazan.

IKAZTEGIETA

22:00. Sua piztuko dute plazan.

LIZARTZA

22:00. Sua piztuko dute plazan.
Jarraian. Otsolar dantza taldearen emanaldia.

ORENDAIN

19:00. Sua piztu aurretik, Julen Basterrak gitarra emanaldia eskainiko du plazan.
21:00. Sua piztuko dute plazan.

TOLOSA

19:30. Bezperak, Andre Mari elizan.
21:00. Tolosako Udal Musika Banda-

ren, Udaberri dantza taldearen eta Hodeiertz abesbatzaren emanaldiak, zezen plazan.
22:30. Sua piztuko dute Andre Mari plazan.

ZIZURKIL (Elbarrena)

19:30. Dantzariak eta trikitilariak plazan bilduko dira, herrian piztuko dituzten su ezberdinak bisitatzeko.
19:55. Akezkoa Auzoko lehen sua.
20:15. Akezkoako bigarren sua.
20:35. Eguzkitza Etxeko sua.
20:50. Azken Portuko sua.
21:10. Ihartzako sua.
21:30. Plazan su txikia piztu eta dantza egingo dute.

ZIZURKIL (Herrigunea)

21:30. Herritarrek udaletxe aurrean elkartuko dira.
Ondoren. Kalejiran plazara joan, eta kanpai errepikarekin, sua piztu eta dantza egingo dute. Amaieran, txokolata banatuko dute.

SAN PEDRO FESTAK

LEABURU-TXARAMA

Ekainak 26, larunbata.

11:00. Miru sorginaren eskutik, *Porrer Salda* erromeria ikuskizuna Ttonttorpe pilotalekuan.

17:00. Bikotekako frontenis txapelketa Ttonttorpe pilotalekuan, 11-16 urte bitartekoentzat. Bikoteko kide batek Leaburukoa izan behar du.

Ondoren. Toka txapelketa.

Ekainak 27, igandea.

11:00. Meza.

11:30. Erretirodunei omenaldia frontoian, herriko dantzariak lagunduta.

Jarraian. Hamaiketako.

12:30. Bertsolariak eta txiste kontalariak.

18:00. Antton Telleriaren *Nekaturtak* bakarriketa saioa.

Ekainak 29, asteartea.

Goizez. Hamaiketako herrikoia ostatuan.

19:00. Evaren Alabak antzerki taldearen *Cromlech* antzezlan, 14 urtetik gorakoentzat.

ASTEASU

Ekainak 26, larunbata.

17:00. Oinkari dantza taldearen emanaldia, frontoian.

Ekainak 27, igandea.

12:30. Herriko trikitilari eskolako ikasleen kontzertua, plazan.

Ekainak 28, astelehena.

9:30. Konkis txikia, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.

19:00. Piraten emanaldia, frontoian.

22:30. *Asteasu kant* herritarrek herriari egindako bideo proiektzioa.

Ekainak 29, asteartea.

10:00. Diana.

11:30. Herriko musikarien kalejira.

12:30. Bertsolariak frontoian: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran eta Unai Mendizabal.

17:30. Herri kirol saioa plazan: Aimar Irigoien, Mikel Lopetegi *Urra* eta Udane Ostolaza harri jasotzaileak eta Eneko Otaño eta Ugaitz Mugerza aizkolariak.

17:00. Argazki ero, DBHko ikasleentzat.

19:00. Puro relajo taldea frontoian.

Udalak aurrekontu parte-hartzaileen prozesua abiarazi du

Tolosako Udalak 2022rako aurrekontua herritarrekin batera zehaztu nahi du eta prozesua abiarazi zuen atzo; udazkenean saio tematikoak egingo dituzte

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Egiteko modu berrietan sakonduz jarraitzen du Tolosako Udalak, eta legealdi hasieran iragarri modura, aurrekontu parte-hartzaileen prozesua urte osora zabaldu du.

Joseba Ormazabal, Gobernantza eta Komunitatea saileko zinegotzi arduradunak adierazi duenez, Tolosatzen prozesuaren barruan, azken urteotan «urrats garrantzitsuak egin eta egitasmo berriak abiarazi dira Gobernantza eredu berrietan sakontzeko». «Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuari dago-kionez, udalaren eta herritarren arteko elkarrizketa urteko momentu jakin batera mugatu ordez, urte osora zabaldu da, prozesua berregokituz, eta beraz, udalean hasita gaude datorren urteko aurrekontuak lantzen», gaineratu du.

EKARPENAK, GAURTIK

Atzo hasi zuten prozesua lehen saioarekin eta lehenik eta behin, 2022an indarrak non jarri behar diren zehaztuko dute, horrela «Tolosako politika publikoen lehentasunak zeintzuk izan behar diren» aztertuko dutelarik.

Gaurtik egin daitezke ekarpe-



Joseba Ormazabal zinegotzia eta Garikoitz Lekuona teknikaria. J.A.D.

nak, hilabete batez, eta udazkenean saio tematikoak egingo dituzte.

Udal gobernuak datorren urtera begirako indar-fokuak zehaztu ditu, horiek teknikoki eta udal talde politikoeekin kontrastatu ditu, eta orain tolosarren txanda iritsi dela esan du Ormazabalek: «Aurtengo aurrekontuak ezohikoak izan dira, pandemiak eragindako beharrei erantzutera bideratu behar izan ditugulako udal baliabideak hein handi batean, baina aurreikusitako proiektuak mantendu eta aurrera eramateko

ahalegina ere egin dugu, bien arteko orekak mantenduz». Datorren urtera begira hortaz, ohiko aurrekontuak osatzea da udal gobernuaren helburua eta bost indar-foku zehaztu dituzte 2022rako: Herritarren ongizatea eta gizarte kohesioa; Tolosa biziberritzea, herri bizia eta dinamikoa helburu; pertsonak erdigunean kokatzen dituen Tolosa: atsegina, zaindua, beharrezko azpiegiturekin; ingurumenaren zaintza eta jasagarritasuna, Aldaketa Klimatikoa-ri aurre egiteko; eta garai berrietara egokitutako udala.

Tolosako PSE-EEK «oso positibotzat» jo du legealdiko lehen zatiaren jarduna

Joxemari Villanueva zinegotzi sozialistak Herriko Etxean egin du balantzea, Renedo Tolosako idazkari nagusia eta Asensio diputatua ondoan zituela

Jon Miranda Tolosa

Tolosan 2019an hasitako legealdia EAJ eta PSE-EEren arteko gobernu hitzarmenarekin abiatu zen. Bi alderdiok gobernuan egin duten bidearen inguruko balorazio politikoa egin du Joxemari Villanueva zinegotziak eta akordioari alderdi sozialistak egin dion ekarpena azpimarratu du: «Bizitza tokatu zaigun egoera latz honetan, ez zen posible izango gobernagarritasuna alderdi sozialistak egindako ekarpenik gabe».

Hain zuzen, COVID-19ak eragindako krisia aipatu du Villanuevak eta lehentasunak ezar-tzera behartuta egon arren, 2019-2023 gobernu planean ezarritako helburuak ez direla bazterrera geratu esan du.

Tolosako familia askok «gaizki» pasatu dutela aipatu dute Tolosako sozialistek, baita bertako merkataritza eta ostalaritzak ere, eta horregatik krisiak eragindako ondorio larriak arintzeko hartutako neurriak zerrendatu dituzte: «Gizarte gastua igo egin dugu eta aurtengo aurrekontuan ia 3 milioi euro izendatu dira errealitate gogor honi aurre egiteko, iaz baino %9 gehiago». Udal tasetan ezarritako hobariak, kontsumo bonuak eta diru

laguntza zuzenak ere aipatu ditu Villanuevak.

Kirol arloko zinegotzi delegatua da Joxemari Villanueva eta agerraldian aitortu du udalak eskaintzen dituen kirol zerbitzuetara bideratu dituela ahalegin nagusiak, «kalitatezko zerbitzu bat emateko eta erabiltzaileek tokiko kirol erakundeek eskaintzen dituzten premiekin bat egiteko».

OSPITALE PUBLIKOAK

Villanuevak esan du Tolosaldeko eskualdeko osasun zerbitzua Gipuzkoako gainerako eskualde- etako baldintza eta baliabide berberetan berma dadin, bi urteotan Eusko Jaurlaritzari beharrezko neurriak har ditzala eskatu diotela sozialistek. Amaitzeko, Tolosako Udaleko zinegotzi izatea esperientzia «oso aberasgarria» dela esan du Villanuevak eta hurrengo bi urteei aurre egiteko, «indar eta ilusio» berdinekin dagoela aipatu du.

Era berean, energia trantsizioa eta mugikortasun jasangarria lortzea helburu duten ekimenak martxan jarriko dituztela aipatu du Villanuevak. «Hiribus elektrikoa datozen egunotan errealitatea izango da eta eraikin publikoetan eguzki plakak jartzen hasi dira Ferialekuan».

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Jabier Goñi Lizartza

Zure adorea, eskuzabaltasuna eta bizitzeko gogo gure artean geratuko dira. Lurak gozo har zaitzala, Jabier.

Gazteluko EH Bildu

GAZTELUN, 2021eko ekainaren 23an



Jabier Goñi Lizartza

Gaztelura etorri zen Txaramako axeria Auzolanean beti prest Asko maite zun herria Hitz gutxi behar zituen Nahiago zuen egia Hobe denok bagiñake

Lanean bere erdia. Jabier tira ta tira! Gerria ta izerdia Jarriko bagiñake gu Behingoz gerora begira Gaztelun atera behar degu Jabierrek zuen dizdira.

Gazteluko Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur elkarteak

GAZTELUN, 2021eko ekainaren 23an

Izapideak egiteko ordutegia zabaldu dute

TOLOSA // Udateko izapideetarako makinan tramiteak egiteko ordutegia zabaldu du udalak, herritarrei eskaintzen zaien arreta zerbitzua hobetzeko helburuz. Astelehenetik ostiralera 07:15etik 20:00etara erabili daiteke orain, eta asteburu eta jaiegunetan ere eskuragarri egongo dira, 08:00etatik 20:00etara.

Tramiteak egin ahal izateko ordenagailua, udaletxean

IRURA // Irurako Udala administrazio eraginkorragoa izateko pausoak ematen ari da, oraingo honetan, ordenagailu bat jarri du herritarren eskura beraien tramiteak elektronikoki egin ahal izateko. Halaber, ez dakien herritarri azalpenak emango zaizkio zein pauso eman behar dituen ikasteko.

Igerilekua zabalik, abuztuaren 31ra bitarte

ASTEASU // Asteasuko igerilekua zabalik dago dagoeneko eta abuztuaren 31ra arte, egunero, 11:00etatik 20:00etara irekiko ditu ateak. Abonu bidez funtzionatuko du aurten eta ez da eguneko sarrerarik salduko. Abonua eskuratzeko lehentasuna asteasuarrek izan dute. Guztira 256 pertsonentzako tokia dago.

Emakumeentzat Atxondora irteera antolatu dute

ALBIZTUR/BIDANIA-GOIAZ // Saiaz Zerbitzuen Mankomunitateak emakumeentzat Atxondora irteera antolatu du. Uztailearen 10ean egingo dute egunpasa, eta helburuen artean Albiztur, Beizama, Bidania-Goiaz eta Errezilgo emakumeek elkar ezagutzera eta elkarrekin ekimenak egitera animatzea dute.

Eskualdeko 8.800 ikasle, herri iraunkoragoak lortzeko lanean

Tolosaldeko hainbat ikastetxetako gazteek Agenda 2030 programa landu dute; hainbat konpromiso hartu dituzte, baina udal arduradunei ere pausoak emateko eskatu diete

Erredakzioa Tolosa

Aduna, Alegia, Anoeta, Amasa-Villabona, Asteasu, Berastegi, Ibarra, Irura, Tolosa eta Zizurkilgo ikastetxeetako ikasleek Eskola Agenda 2030 programa garatzen aritu dira ikasturte honetan. Euren herriak hainbat ikuspuntutatik aztertuta dituzte eta udal arduradunei proposamenak egin dizkiete.

Ikasturte honetan estreinatu da Eskola Agenda 2030 programa. Garapen Iraunkorrerako 17 helbururen bidez, pertsonak, planeta eta oparotasuna babesten laguntzea helburu duen ekintza-plana jarri da martxan. Euskal Herrian beste helburu bat gehiago ere izan du: kultur eta hizkuntza aniztasuna sustatzea.

Plangintza berria izanik, egokitzeko ikasturtea izan da, hortik, jarri zaion izena: trantsizio-ikasturtea. *Ikastetxe iraunkorra, herri iraunkorrean* lelopean, eskualdeko ikastetxeak herria hobetzeko aukerak eta bideak aztertzen eta lantzen aritu dira. Zehazki Tolosaldeko 7.700 ikaslek hartu dute parte.

KONPROMISOAK

Norbere herria ikuspuntu desberdinetatik aztertuta osten, lanaren emaitzak, hartu dituzten konpromisoak eta proposamenak udal bakoitzari aurkeztu dizkiete, baina gazteek ere hartu dituzte hainbat konpromiso.

Tartean, etxeko lanetan modu orekatuan parte hartzekoa, base-ritarrei beraien ohiturak zabalitzen laguntzekoa, herriko dendetan eta beharrezkoa dena soilik erostekoa, edota mugikorra puskatzean, berria erosi baino lehen, konpontzera eramatearena.

Ikastetxetako gazteek gain, Lanbide Heziketako beste 1.045 ikaslek hartu dute parte ekimenean. Don Bosco, Fraisoro Eskola, Tolosaldea LHI, Inmakulada Ikastola eta Peñascalen Baratzeko Eskola proiektua landu dute aur-



Gazteak Adunan, konpromiso eta proposamenen berri ematen. ATARIA

ten, eta ikastetxe bakoitzaren ikasketa alorrak kontuan izanik, baratzearekin zerikusia duten arloak landu dituzte.

Tolosaldea Garatzenek esan

du datorren ikasturtean *Lurreko Ekosistemetako Bizitzan* dela landuko den gaia, eta herri diagnostikoan basoa izango dutela aztergai.



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Tolosaldea Garatzenek eta Elhuyarrek sustaturiko Bizilabe proiektua ere ikasturte amaierara iritsi da. Hori dela eta, ekitaldia egin zuten Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan. Bizilabe 10-14 urte bitarteko gazteek urtean zehar egindako zientzia eta teknologia esperimendu eta proiektuak aurkeztu zizkieten guraso, lagun eta agintariei. ATARIA



ZOZKATU DITUZTE

Tolosako Euskal Herria plazako alokairuko etxebizitzak zozkatu zituzten atzo. Guztira, 105 gaztek eman zuten izena, eta horietako 17ri egokitu zaie etxebizitza bana; laster jakinaraziko du udalak behin betiko zerrenda. J.A.D.

LASKORAIN IKASTOLAK

21-22 ikasturterako irakasle hauek behar ditu bigarren hezkuntzarako:

- Gizarteko irakaslea: Beharrezkoa izango da **Historian, Antropologian edo Zientzia Politikoa** gradua izatea eta **Ingelesezko B2** titulua izatea. [%80ko jarduna]
- Zientzia irakaslea: Beharrezkoa izango da **Biologia edo Kimikan** gradua izatea eta **Ingelesezko C1** titulua izatea. [%90eko jarduna]
- Matematikako irakaslea: Beharrezkoa izango da **Matematikan, Fisikan edo Kimikan** gradua izatea eta **Ingelesezko B2** titulua izatea. [%62ko jarduna]

Kasu guztietan, beharrezkoa da Bigarren Hezkuntzan lan egiteko irakaskuntza-masterra eta Euskarazko C1 titulua izatea

Curriculumak e-mailez bidali behar dira laskorain@ikastola.eus helbidera. Jasoko diren azken eguna, ekainak 29.

‘Frontona’ antzerki obra eskainiko dute etzi Villabonako Errebote plazan; ikuskizunean, ikusleekin jolastuz, euskal kultura erdigunera ekartzeko ahaleginean aritzen dira hiru aktore eta bi pilotari

Pilota antzerki interaktiboa

Jon Miranda Amasa-Villabona

Pilota jokoa aitzakia-tzat hartuta ikusle-ari jolasa proposatzen diote *Frontona* ikuskizuneko aktoreek. Unai Ormaetxea andoaindarrak, Iñigo Otaegi billabonatarrak eta Josu Artutxa tolosarrak gidatzen dute emanaldia eta kantxan Janire San Sebastian eta Anne Maiza pilotari zizurkildarrak aritzen dira. Antzezle izateaz gainera, eragile ere badira, harmailetara zuzendutako galderekin publikoa interpellatu nahi baitute. Euskal kultura jarri nahi dute erdigunean eta Villabonako erdigunera, Errebote plazara eramango dute ikuskizuna, etzi, 19:00etatik aurrera.

Iñaki Urruzola Mondragon Unibertsitateko irakaslearena da hasierako ideia. *Frontona* ikuskizuna funtzio sozial bat betetzera datorrela uste du Urruzolak: «Gure motibazioa ez da bakarrik sorkuntza espazioan aritu eta estetikoki txukun xamarra den lan bat eskaintzea, horrekin batera kezka batzuk sozializatu nahi ditugu. Gure kultura hein batean minorizatua dago, gutxieste prozesuan, are gehiago pandemia egoeran. Hainbat gai berri erdigunera ekartzeko gogoia dago lanaren oinarrian».

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa ikasle izan zituenei proposamena luza-tu eta pandemia aurretik hasi ziren antzerki obra gorpuzten, Tolosako Udaberri dantza taldearen lokalean. Irakasleak satea bota eta ikasleek errestoa egin.



Atzean Ormaetxea, Artutxa eta Otaegi; aurrean Maiza eta San Sebastian, antzezlaneko aktoreak. MYRIAM LIZARRALDE

Artutxa, Otaegi eta Ormaetxea hasi ziren Urruzolarekin batera ikuskizuna prestatzen. «22ra jokatzen den pilota partida da oinarria eta jokoa eta jolasaren arteko nahasketa eginez, ikusleekin interakzioa bilatzen dugu. Galdera batzuk botatzen ditugu eta euskal kulturaren inguruko ezagutzaz gogoeta egitera bultzatzen dugu publikoa», esan du Artutxak.

Pilota partida izanik pilotariak ezinbestekoak dira. Gorriz aritzen da Anne Maiza eta urdinez Janire San Sebastian. Proposamena nola iritsi zitzaizen kontatu du Maizak: «Antzerki munduan batere esperientziarik ez nuen,

zertxobait gehiago Janirek. Hasieran zalantza izan nuen ez bainaz sekula horrelako lanetan ibili. Lotsatia naiz eta jendaurrean hitz egitea ez zait gehiegi gustatzen, baina gutxi asko, beti egin izan dugun hori egin behar nuela ikusi nuenean animatu nintzen. Guretzako oso polita da eta oso gustura aritzen naiz».

NEURRI GUZTIETARA EGOKITUZ

Antzerki munduan esperientzia handirik izan ez arren «talde disiplinatu» dela aipatu du Urruzolak, obraren zuzendariak. Pandemia aurretik osatu zuten antzez-lana eta lehenengo probaldi baten ondoren, hilabete batzuk

eman zituzten geldirik joan den martxoan *Frontona* Azkoitiko Gurea frontoian estreinatu zuten arte. «Hiperrealismoaren alde» jarduten duela dio Urruzolak: «Izenburutik hasi eta obraren mekanismo osoa martxan jarri arte, dekoratu nagusia frontoia da eta egiazko frontoi batean gertatzen denetik oso gertu dago kontatzen duguna. Pilotalekua da obra eskaintzeko gune naturala, eta beste tokiren batean eskaini izan dugunetan ere frontoi itxura eman diogu dekoratuari».

Azkoitikoan jardun ondoren, Beasaingo Gernikako pasealekuko zazpi koadroko frontoi irekian eta Tolosako Herrikide ikastetxe-

ko lau koadrokoan eskaini dute ikuskizuna. «Edozein motatako frontoietan egin daiteke ikuskizuna, gurera ekarri eta moldatu egiten dugu tokiaren ezaugarrietara», esan du Artutxak. Etzi Villabonan Errebote plazan egingo dutena berezia izango dela aipatu du: «Herriko erdigunean dagoen plaza da eta berezia izango da saioa».

Publiko zabalarentzat egokia den ikuskizuna da *Frontona* Urruzolaren esanetan. Hasieran nerabeak eta batxilergoko ikasleak buruan izan bazituzten ere, konturatu dira adin eta jatorri ezberdinetako jendearentzat interesgarria izan daitekeela antzerki obra. «Hezitzailea da neurri batean eta komunikazio zuzen-zuzena lortzen dugu publikoarekin. Partaidetza horrek antzerkiaren parte bihurtzen ditu ikusleak eta osatzen du proiektua bera. Uste dut obra ikusi ondoren publikoak buruhauste batzuk eramaten dituela etxera eta neurri batean hori da antzezlanaren helburua», esan du Urruzolak.

Orain arteko saioetan izan duten harrerarekin «oso pozik» agertu dira antzerki obra egiten duten kideak. «Jendeak beste antzerki lan batzuekin alderatuta oso ezberdina dela esan digu. Nik esango nuke pilota partida bateko elementuetatik abiatuta, horiei buelta bat ematez, zerbait berezia egiten dugula. Proposamen berritzailea izatea beti da aberasgarria». Hogeita bi kintzera iristeko, kulturaren partida irabazteko aukera izango dute herritarrek, etzi, Villabonako Errebote plazan, 19:00etatik aurrera.



1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera




mendexpark.com
688 85 62 83
MENDEXA
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

harpidedun izateak badu saria zozketa

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



aquariumss.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera



Aranzadi Zientzi Elkarte
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
birdcenter.org
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Unai Iribar hirugarren izan da Espainiakoan

Brontzezko domina horrekin beste lorpen bat poltsikoratu du txirrindulari ibartarrak; horrez gain, Abiatzen Torneoa irabazi du

Imanol Garcia Landa

Unai Iribar ibartarrak emaitza nabarmenak lortzen jarraitzen du denboraldi honetan. Azkenea asteburuan jokatu zen 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan lortutako hirugarren postua. «Denboraldi honetan bolada ona harrapatuta nabil, aurreko lorpenekin segidan, beste hau etorri da, eta oso pozik», esan du Iribarrek. Ivan Cobo izan zen irabazlea eta Marcel Camprubi bigarrena.

Txirrindulari ibartarrak orain gutxi parte hartu du 23 urtez azpiko Giroan, eta lasterketa horretan nekea pilatu bazuen ere, gero uste du Espainiako Txapelketan balio izan ziola Italian egindako lanak. «Nekea izan nuen aurreko astean, baina behin lasterketa hasi zenean, gero eta hobeto sentitzen nintzen, eta uste dut Giroak eman zidala aurrean egoteko puntu hori», esan du Iribarrek. Bere mailan dagoen lasterketa garrantzitsuena da Giroa eta Iribarrek 15. postuan amaitu zuen sailkapen orokorrean eta hiru etapatan lehen hamar postuetan sailkatu zen. «Gustura nago egindakoarekin, bai esperientziarekin, bai emandako mailarekin eta lortutako emaitzekin ere».

Larunbatean Tolosan afizionatuen lasterketa zegoen, baina Iribarrek ezin izan zuen parte



Unai Iribar, eskuinean, podiumean. RFECC

hartu Espainiako Txapelketa lehiatzen ari zelako. Hala ere, Abiatzen Torneoaren sailkapen orokorra irabazi du. Erregularitasun handia erakutsi du beste behin ibartarrak torneoa irabaziz.

Datorren urtean profesionale-tara pasatzeko aukeraz galdetzen, lasai dagoela esan du Iribarrek: «Ni nire gauzak ondo egiten ari naiz, eta agian profesionale-tara salto egiteko arrazoiak ematen ari naiz, baina oraindik urtea luzea da, eta nik nirea ondo egiten jarraitu beharko dut eta emaitza gehiago lortzen segi, salto hori emateko arrazoi gehiago izateko». Profesionale-tara pasatzeko helburua du Iribarrek eta uste du «bide onetik» doala.

BESTE PARTE HARTZAILEAK

Unai Iribarrek batera Iñaki Diaz tolosarra ere izan zen 23 urtez azpiko Espainiako Txapelke-

tan, Euskadiko selekzioarekin, baina ezin izan zuen lasterketa amaitu. Bestalde, Jon Irisarri leaburuarra profesional mailako lasterketan izan zen, eta gainera bere protagonismoa ere izan zuen, lasterketako ihesaldi nagusian egon baitzen. Azkenean 21. postuan amaitu zuen Caja Rural Seguros RGA taldeko txirrindulariak.

Eukene Larrarte tolosarrak eta Naia Amondarain ibartarrak ere parte hartu zuten Espainiako Txapelketan. Larrartek (elite mailan) eta Amondarainek (23 urtez azpikoan) denbora berean amaitu zuten errepideko lasterketa, ibartarra 26. postuan eta tolosarra 28. postuan helmugaratu. Errepideko lasterketaz gain, erlojuaren aurkako proban ere parte hartu zuen Larrartek, 11. postuan amaituz sailkapen orokorrean, eta seigarren postuan elite mailan.

Ezin izan dute finalera iritsi Herriartekoan

I. Garcia Landa Alegia/Tolosa

Oso zaila zuten finalera igarotzea eta azkenean finalerdiekin konformatu behar izan dute Alegiak zein Tolosak Herriarteko Pilota Txapelketan. Alegiak eskuz Oartzunen aurka zuen kanporaketa eta azkenean 6-0 galdu zuen. Tolosak gomazko paletan Azkoitia zuen aurkari eta 2-4ko emaitzarekin bukatu zuen norgehiagoka.

Alegiak Oartzunen jokatu zituen itzulerako partidak, eta etxeoketan gertatu bezala, hirurak galdu zituen: kadeteetan 22-8, jubeniletan 22-3 eta nagusietan 22-13. Aldaketak egin zituzten, zenbait pilotari eskuko minarekin zeudelako. Finalera ez pasa arren, oso gustura daude alegiarrak egindako txapelketa-rekin, Jose Luis Zabala taldeko ordezkariak azaldu duenez: «Orokorrean txapelketa ezin hobe egin dugula iruditzen zaigu. Atera ginen azken unean pilotariak prestatu zirelako ateratzera, eta sekula izan ditugun emaitza onenak lortu ditugu».

Tolosak Irurako udal frontoian jokatu zuen etxeko bezala, eta palistek ezin izan zioten Azkoitian jasotako 3-0ko markagailuari buelta eman. Kantxa osoan 9-20 galdu zuten, binaka irabazi 20-11 eta zazpi koadroaren barruan ere irabazi 20-12. «Finalerdietara iritsiz gero, bagenekin ziurrenik Azkoitiaren aurka jokatuko genuela, eta azkeneko txapelketan finalean irabazi zигuten, eta oraingoa finalerdie-

tan», esan du Javi Iraola ordezkariak. «Bagenekien arerio gogorra izango zela eta gu baino hobeak izan dira». Behintzat etxeko partidetan 2-1ekoa lortu zutela gaineratu du, eta finalerdietara iristeak duen meritua ere baloratu dute.

BERAZUBIKO PALA TXAPELKETA

Herriarteko txapelketatik kanpora geratu ondoren, Tolosa CF-ko palistak buru belarri daude Berazubiko Pala Txapelketaren antolakuntzan. Aurten 53. urtea izango du eskualdean eta eskualdetik kanpo izena duen txapelketak. Datorren astelehenean hasiko dira partidak eta uztaillaren bukaera arte behintzat iraungo duela aurreikusten dute. Asteleheneetik ostirala bitarte izaten dira partidak, eta 18:00ak aldera hasten dira. «Bere xarma duen frontoia da Berazubikoa, tantoak lortzeko erasora jokatzeraz behartzen zaituena, eta giro polita izaten da», esan du Iraolak.

Lehen maila, bigarren maila eta emakumezkoen maila antolatuta dute. Lehen mailan zortzi bikote lehiatuko dira, bigarren mailan 17 bikotek eman dute izena eta emakumezkoetan bi bikote animatu dira. «Urtero saiatzen gara inguruan dauden elkarteko emakumezko palistekin harremanetan jartzen, txapelketan parte hartzeko, baina datak direla-eta ez da erraza izaten», esan du Iraolak. «Aurten bi bikote animatu dira eta zerbait berezia egingo dugu».

Tolosa CF-ko atleten emaitza nabarmenak

Erredakzioa Tolosa

Tolosa CF-ko atletek asteburuan emaitza nabarmenak eskuratu dituzte, bai 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan zein 16 urtez azpiko Euskadiko Txapelketan.

Espainiako Txapelketan Ander Urangak urrezko domina lortu zuen Real Sociedad klubarekin 4x100 metro erreleboetan, 41,56 denborarekin Gipuzkoako

errekor berria ezarriz. 200 metroan ere parte hartu zuen Urangak, baina ezin izan zuen finalean sartu.

Paula De Juanek 4. amaitu zuen 400 metro hesietan, 1.00,17rekin brontzezko dominatik bi ehunekora. Proba berean Iratxe Martinek bere marka pertsonala egin zuen finalera sartzeko, 1.01,87rekin, eta gero 8. postua lortu zuen. Izaro Perurenak 6. postua lortu zuen 3.000

metro oztopoetan, eta 10.56,98rekin Tolosa CF-ko errekor berria jarri zuen.

Ainhoa Gibelalde 100 metroan eta 100 metro hesietan lehiatu zen. Azken honetan 8. sailkatu zen eta beste proban finalerdietaraino iritsi zen. Eunete Martinez de Rituertok 9. postua lortu zuen altuera jauzian, 1,63 metroko markarekin. 4x100 metroko proban parte hartu zuten Paula De Juan, Iratxe Martin, Ainhoa

Gibelalde eta Ainara Lakuntzak, eta 6. postua lortu zuten 49,31rekin.

Euskadiko Txapelketan bederatzi domina lortu zituzten Tolosa CF-ko atletek. Urrezko bi izan ziren: Maier Olanok 1.500 metro oztopoetan 5.42ko denborarekin eta Egoi Dorronsorok 300 metro hesietan 42,99rekin. Zilarak lau izan ziren: Idoia Arrospidek 600 metroan 1.42rekin, June Lopetegik 100 metroan 13,30rekin,

Saioa Rodriguez 1.000 metroan 3.15rekin eta Irati Urdanoz pisu jaurtiketan 9,17 metrorekin. Brontzezkoak hiru izan ziren: Saioa Carranza luzera jauzian 4,92 metroko markarekin, Xanet Zubillaga 300 metro hesietan 44,13rekin eta June Lopetegik 300 metroan 43,31rekin. Bestalde, Txindoki taldeko Uxue Arto-la abaltzisketarrak urrezko domina lortu zuen pisu jaurtiketan, 10,67 metroko markarekin.

